



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

### 2013KO ABENDUAREN 17KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.

**Batzarra:** Premiazko bilera berezia.

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Eguna:** 2013.12.17.

**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

#### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Mikel Leiza Etxeberria jn.

Teodoro Pikabea Zubieta jn.

#### **Bertaratu ez direnak:**

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

#### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

#### **Aztergaiak:**

1.-Herriko Etxean Espainako bandera ipintzeko jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Zinegotziak onartu dute bileraren premia eta egiteko beharra.

### **1.-HERRIKO ETXEAN ESPAINAKO BANDERA IPINTZEKO JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA.**

2013ko irailaren 19an Gobernuko Ordezkaritzak idatzi bat bidali zuen Espainiako bandera hilabeteko epean jartzeko errekerimendua emanez.

Idazkariak aditzera eman du 2013ko azaroaren 26an hartu dela Estatuak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Espainiako bandera ez jartzeagatik. Hogei eguneko epea ematen da espedientea igortzeko.

Herri batzarra egin ondoren eta gaia aztertu ondoren.

Aho batez legeak agintzen duena betetzeko, ERABAKI DUTE:

1) Herriko Etxeko balkoian Espainako bandera jartzea.

Bertzerik gabe, gaueko 18:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn.

